

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

## **ORDENANTZA FISKALA, AUTO-TAXI LIZENTZIEN TASEA ARAUTZEN DAUENA**

### **1. artikulua. OINARRIA ETA IZAERA.**

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek Auto-taxien Lizentzien tasa eskatuko du.

### **2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA**

Tasa honen—egitate ezargarrria auto-taxien lizentzien gaineko zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea da, martiaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onetsitako erregelamentuan agertzen direnak eta automobil arinen garraioko uriko zerbitzuen gaineko Udal Erregelamentuak garatuak hain zuzen ere. Hona hemen zerbitzuok eta jarduerok:

- a) Lizentzien kontsezioa eta ematea.
- b) Lizentziak eskualdatzeko baimena ematea, halan egitea egokia denean eta indarreko legeriaren arabera.
- c) Lizentziari lotutako ibilgailuak aldatzeko baimena ematea, bai aldaketa borondatezkoa denean, bai legeak aginduta denean.

### **3. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.**

Legeetan edo Nazioarteko Itunen aplikazioetan beren beregi ezarritako salbuespenak edo hobariak baino ez dira emango.

### **4. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK.**

Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak, hau da, auto-taxien lizentzia hartzen dituztenak.

### **5. artikulua. TASA KUOTA.**

Tasa kuota kopuru finko batez finkatuko da, zerbitzuaren edo jardueraren eta honako tarifa hauen arabera:

	2020 (€)
1- Lizenzia emotea	372,18
2- Bizien artean lizenzia eskualdatzeko baimena	1.425,08
3- Heriotzeagaitik derrigorrezko oinordekoen alde lizenzia eskualdatzeko baimena	653,86
4- Ibilgailua aldatzeko baimena	18,86

#### **6. artikulua. SORTZAPENA.**

Tasa sortuko da eta tasa ordaindu behar izango da udal honek lizenzia eman eta luzatuko duen egunean edo lizenzia eskualdatzeko edo ibilgailua aldatzeko baimena emango duenean.

#### **7. artikulua. ORDAINTZEA.**

1.- Tasa honetako jarduerak eta zerbitzuak alde batek eskatuta egin beharko dira.

2.- Kuota guztiak kitatu egingo dira zuzeneko ordainketea egiteko lizenzia edo baimen egokiak emanda gero, eta zergadunek diru-bilketearen gaineko erregelamentuan ezarritako epean ordainduko dituzte kuotak.

#### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsi dauen Kudeaketa, Diru-bilketea eta Ikuskapenaren gianeko Ordenantza Fiskal Orokorra eta aplikatzekoa dan legeria bete beharko dira.